

---

banco de  
alimentos  
de bizkaia

---



---

bizkaiko  
elikagaien  
bankua

---

txostena | memoria

2023

*BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA Gardentasunaren Oinarriak eta Leialtasun Fundazioaren Praktika Onak betetzen dituen GKE moduan onartua izan da. Aldeko txostena honako orri hauetan kontsulta daiteke: [www.fundaciónlealtad.org](http://www.fundaciónlealtad.org) eta [www.guiatransparenciaong.org](http://www.guiatransparenciaong.org).*

*Irabazi-asmorik gabeko entitateen 2019tik Zerga Erregimena eta mezenasgorako pizgarri fiskalak aplikatzeko lehentasuneko jarduera deklaratu.*

*Onura Publikoko Gizarte Erakundetzat jota Maiatzaren 2ko 78/2001 Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren bidez.*

*Erakundeen Erregistroaren lehenengo atalean inskribatua AS/B/05273/95 zenbakiaz 1995eko Maiatzaren 8ko Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren Erabakiarekin.*

*Bilboko Udaletxearen Elkartearen Udal-Erregistroan inskribatua 511 zenbakiarekin.*

*Eusko Jaurlaritzako "Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra"n inskribatua 137 zenbakiarekin.*

*Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Erakunde Kolaboratzaile moduan onartua, BO-159 zenbakiarekin.*

*I.F.Z.: G-48755433.*

**PREMIO PRÍNCIPE DE ASTURIAS DE LA CONCORDIA 2012  
2012KO ADISKIDETASUNAREN 'ASTURIASEKO PRINTZEA' SARIA**



El BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA ha sido reconocido como ONG que cumple los Principios de Transparencia y Buenas Prácticas de la Fundación Lealtad. El informe favorable puede consultarse en [www.fundaciónlealtad.org](http://www.fundaciónlealtad.org) y en [www.guiatransparenciaong.org](http://www.guiatransparenciaong.org).

Declarada de Actividad Prioritaria para la aplicación del Régimen Fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo desde 2019.

Declarado Institución Social de Utilidad Pública por Decreto del Gobierno Vasco 78/2001 de 2 de mayo.

Inscrito en la Sección 1 del Registro de Asociaciones con el n AS/B/05273/95 por Resolución del Dpto. de Justicia del Gobierno Vasco de 8 de mayo de 1995.

Inscrito en el Registro Municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Bilbao con el nº 511.

Inscrito en el "Censo General de Organizaciones de Voluntariado" del Gobierno Vasco con el nº 137.

Reconocido como Entidad Colaboradora del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, número BO-159.

N.I.F.: G-48755433.





## Presidentearen agurra Saludo del Presidente

Urtero bezala, hemen doakizue Bizkaiko Elikagaien Bankuaren urteko txostena.

Hasteko, datu kezkarri bat eman beharra dago: 24.356 pertsona artatzen amaitu dugu 2023. urtea. 7.987 familiari eman diegu laguntza, eta horien artean daude 4.386 haur eta 648 bularreko ume. Datu horiexekin hasi genuen urtea, eta horrek esan nahi du krisi ekonomikoak eta inflazioak eragin handia dutela oraindik Bizkaiko pertsona zaurgarriengan; izan ere, azken 12 hiletan ez da aldatu onuradunen kopurua.

Beti bezala, Basauriko instalazioetatik bideratzen dugun lan solidarioa 188 boluntarioi esker gauzatu dugu; musu-truk lan egiten dute, eta beren esperientzia eta denbora eskaintzen dituzte erabateko profesionaltasunez eta arduraz.

Era berean, ezin ahaztu ditugu 156 erakunde laguntzaileetan lan egiten duten pertsonak, Elikagaien Bankutik ematen dizkiegun elikagaiak banatzen dituztenak.

Jakina, ezinbestean aipatu behar dugu maiatzeko eta azaroko elikagai-bilketen arrakastarako zer-nolako garrantzia duten peto urdina soinean jantzita supermerkatuetako bezeroak animatzen, bideratzen eta aholkatzen aritzen diren 5.000 lagunek. Kanpaina horiek aurrekaririk gabeko arrakasta izan dute 2023an.

Era berean, nabarmendu nahi dugu urtean zehar onuradunei ematen diegun oinarritzko dieta egokitu behar izan dugula, esnearen eta olioaren prezioen igoerak familia bakoitzarentzako kopuruak murriztera behartu gaituelako; eta egoera ekonomikoa ikusirik, susmoa dugu oraingoz ezingo ditugula banatu lehen banatzen genituen kopuruak.

Aukera baliatuz, eskerrak eman nahi dizkiot Bizkaiko gizarteari gure lan solidarioari ematen dion etengabeko laguntzagatik. Duela 17 urtetik naiz boluntario Elikagaien Bankuan, eta zenbait erantzukizun betetzen ditut, eta on-dorioztatu dut norberarengan pentsatu ordez besteengan pentsatzen duen jendea dagoelako ateratzen dela aurrera gure jarduna.

Elikagaien Bankuan besteentzat lan egiten dugu, ez norberarentzat. Simone Weilek esan zuen moduan: "Garrantzizkoa ez da lan intelektual bat edo eskulan bat izatea; garrantzitsuena profesionaltasunez egitea da, prestakuntza egokiarekin eta pentsamendua erabiliz, eta lana ez izatea behar hutsa". Hitz horiek ezin hobeto islatzen dute Bizkaiko Elikagaien Bankuan aritzen diren boluntarioen lan solidarioa.

Un año más presentamos la Memoria Anual del Banco de Alimentos de Bizkaia.

En primer lugar, hay un dato preocupante y es que hemos terminado el año 2023 atendiendo a 24.356 personas. Las familias atendidas han sido 7.987 de las cuales 4.386 son niños y 648 lactantes. Estos datos son los mismos con los que empezamos el año, lo que significa que la crisis económica y la inflación siguen incidiendo de forma muy importante en las personas más desfavorecidas de Bizkaia ya que no ha variado el número de beneficiarios a lo largo de los últimos 12 meses.

Como siempre, la labor solidaria realizada desde nuestras instalaciones de Basauri las llevamos a cabo gracias a los 188 voluntarios y voluntarias que trabajan desinteresadamente, aportando su experiencia y su tiempo con total profesionalidad y responsabilidad.

Asimismo, no podemos olvidar a las personas que trabajan en las 156 entidades colaboradoras que reparten los alimentos que les proporcionamos desde el Banco de Alimentos.

Lógicamente, es muy valioso para nosotros destacar la importancia que tienen para el éxito de las Recogidas de Alimentos realizadas en los meses de mayo y noviembre las 5.000 personas que con sus petos azules animan, orientan y aconsejan a los clientes de las cadenas de alimentación; campañas que en 2023 han sido un éxito sin precedentes.

También, queremos destacar que a lo largo del año hemos tenido que ajustar la dieta básica que entregamos a los beneficiarios porque la subida de los precios de la leche y el aceite nos ha obligado a reducir las cantidades entregadas a cada familia y mucho nos tememos que tal y como se presenta la coyuntura económica, por el momento, no podremos recuperar las cantidades que antes aportábamos.

Aprovecho esta oportunidad para agradecer a la sociedad de Bizkaia el apoyo constante que da a nuestra labor solidaria. Desde hace 17 años soy voluntario en el Banco de Alimentos, desarrollando mi labor en diversas responsabilidades y he llegado a la conclusión de que la actividad sale adelante gracias a que contamos con personas del "tú y no del yo".

En el Banco de Alimentos se trabaja para los demás, no para uno mismo. Como dice Simone Weil: "lo importante no es tener un trabajo intelectual o manual, lo importante es hacerlo profesionalmente, con la preparación adecuada, con la aplicación del pensamiento y que el trabajo pueda ser no sólo una necesidad". Estas palabras reflejan perfectamente la labor de las personas que ejercen su función solidaria en el Banco de Alimentos de Bizkaia.



## Aurkezpena Indice



PRESIDENTEAREN AGURRA .....	3
SALUDO DEL PRESIDENTE	
AURKEZPENA .....	4
INDICE	
1. ZER DA BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA .....	5
QUÉ ES EL BANCO DE ALIMENTOS	
2. ZUZENDARITZA BATZORDEA, BOLUNTARIOAK ETA ANTOLAKETA .....	6
JUNTA DIRECTIVA, VOLUNTARIOS Y ORGANIZACIÓN	
3. BALOREAK ETA PORTAERA KODE ETIKOA .....	7
VALORES Y CÓDIGO ÉTICO	
4. GURE ZENBAKIAK .....	8
NUESTRAS CIFRAS	
5. TXOSTEN EKONOMIKO-FINANZARIOA .....	11
INFORME ECONÓMICO FINANCIERO	
5.1. BALANTZE LABURTUA .....	11
BALANCE ABREVIADO	
5.2. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK .....	12
CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS	
5.3. 2023KO LIKIDAZIOA ETA 2024EKO AURREKONTUA .....	13
LIQUIDACIÓN 2023 Y PRESUPUESTO 2024	
6. 2023KO GERTAERAK .....	14
ACONTECIMIENTOS EN 2023	
7. BILKETAK .....	21
RECOGIDAS	
9. HELBURUAK: 2024ERAKO AURREIKUSPENA .....	22
OBJETIVOS: PREVISIÓN PARA 2024	
10. 1. ERANSKINA: ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK 2023AN .....	23
ANEXO 1: ENTIDADES COLABORADORAS EN 2023	
11. 2. ERANSKINA: ERAKUNDE JASOTZAILEAK 2023AN .....	26
ANEXO 2: ENTIDADES RECEPTORAS EN 2023	
SARI ETA AITORTZEN ZERRENDA .....	28
PREMIOS Y RECONOCIMIENTOS	





1

## Zer da Elikagaien Bankua Qué es el Banco de Alimentos



*Bizkaiko Elikagaien Bankua, gainontzeko elikagaien bankuak legez, dirurik irabazteko asmorik gabeko erakundea da. Bere betebeharra gizaki guztien oinarritzko premia bat asetzen ahalegintzea da: jatea. Gainera, janaria alperrik ez dadila gal bere helburuetako bat da.*

*Horretarako, elikagaiak (batzuetan sobera daudenak) batzea bultzatzen du, eta bere instalazioetan gordetzen ditu. Gero, premia daukaten pertsonak elikatzen dituzten laguntza-zentroetan banatzen ditu.*

*Gaur egun elikagai nahikoak dauzkagu jende guztia elikatzeko. Arazoa da behartsuei janari hori zelan helarazi: horretan datza, hain zuzen ere, elikagai bankuen lana.*

*Gizarteak ondotxo ezagutzen ditu goseak sortzen dituen arazoak, baina ez daki elikagaiak alperrik galtzen direla, eten barik eta gero eta gehiago. Horrek ekartzen dituen osasun eta diru arazoak ere ez dira batere ezagunak.*

*Egoera horren aurrean, soberakinen eta pobrezia-aren artean dagoen kontraesana konpontzeko behar den elkartasun-izpiritua bizten ahalegintzen dira elikagaien bankuak, sobera daukaguna behar dutenei hurreratuz.*



El Banco de Alimentos de Bizkaia, al igual que los demás Bancos de Alimentos, es una institución sin ánimo de lucro que trata de resolver la necesidad básica del ser humano que es la alimentación, así como luchar contra el despilfarro de alimentos.

Para este fin, promueve la recogida de alimentos, que almacena en sus instalaciones para proceder, posteriormente, a su reparto entre los centros asistenciales cuyo objetivo es dar de comer a los necesitados.

Actualmente, existen alimentos suficientes para abastecer a toda la población. El problema es hacerlos llegar a las personas en situación de necesidad y ese es el compromiso de todos los Bancos de Alimentos.

La Sociedad conoce los problemas generados por el hambre, pero ignora el constante y creciente despilfarro de alimentos y los problemas sanitarios y económicos que conlleva la eliminación de los mismos.

Ante estas circunstancias, los Bancos de Alimentos tratan de despertar el espíritu de solidaridad necesario para resolver la contradicción “excedentes-pobreza”, acercando lo que nos sobra a los que lo necesitan.



## 2

## Zuzendaritza Batzordea, boluntarioak eta antolaketa Junta Directiva, voluntarios y organización

### ZUZENDARITZA TALDEA:

**BATZORDEBURUA:** Luis Crovetto Castañón.

**BATZORDEBURUORDEAK:** Javier Extremo Díaz eta Teresa Viguri Martínez.

**IDAZKARIA:** Marta del Olmo Ablanedo.

**DIRUZAINA:** José Ramón Ruiz Bilbao.

**BATZORDEKIDEAK:** Nicolás M<sup>a</sup> Palacios Cabero, Miguel Ángel Fernandino Arecha, Cayetana López-Tapia Egia, José Esteban Bilbao Axpe, Amaia Urberuaga Badiola, José Luis Marro Diego, Andrés García del Olmo, Marcelino Hernández Garduño eta Jose Manuel Villameriel Domingo.

**BOLUNTARIOAK:** Sortu zenetik BABak bolondresen laguntza jaso du borondate onez egindakoa eta ezinbestekoa elkar-teak dituen helburuak lortzeko. Une honetan 188 bolondresek (141 gizon eta 47 emakume) osatzen dute elkar-tea eta beraien laguntzari esker funtzionatzen du BABak.

### JUNTA DIRECTIVA:

**PRESIDENTE:** Luis Crovetto Castañón.

**VICEPRESIDENTE:** Javier Extremo Díaz.

**VICEPRESIDENTA:** Teresa Viguri Martínez.


**SECRETARIO:** Marta del Olmo Ablanedo.

**TESORERO:** José Ramón Ruiz Bilbao.

**VOCALES:** Nicolás M<sup>a</sup> Palacios Cabero, Miguel Ángel Fernandino Arecha, Cayetana López-Tapia Egia, José Esteban Bilbao Axpe, Amaia Urberuaga Badiola, José Luis Marro Diego, Andrés García del Olmo, Marcelino Hernández Garduño y Jose Manuel Villameriel Domingo.

**VOLUNTARIOS:** Desde su fundación el BAB ha contado con la colaboración y entrega desinteresada de voluntarios para el cumplimiento de sus fines. En la actualidad son 188 (141 hombres y 47 mujeres).

Sin ellos, el funcionamiento del Banco no sería posible.



3

## Baloreak eta kode etikoa Valores y código ético

### GURE BALOREAK - NUESTROS VALORES:

#### NEUTRALITASUNA NEUTRALIDAD

*Edozein bereizkeriaren aurka agertzen da gure Elkarteak, batez ere pertsonen duintasunaren aurkakoa bada.*

No se discrimina por creencias, salvo que se atente contra la dignidad de las personas.

#### PROFESIONALITASUNA PROFESIONALIDAD

*Bolondresek euren jakintza eta lana ematen diote BAB elkarteari.*

Los voluntarios aportan sus conocimientos y experiencia en su cometidos en el BAB.

#### DOAKOTASUNA GRATUIDAD

*BABaren sustraia bolondresen gain dago eta horregatik ez dute jasotzen inolako diru ordainketarik.*

El voluntariado es la base del funcionamiento del Banco de Alimentos; nadie está remunerado.

#### GARDENTASUNA TRANSPARENCIA

*BABa "Lealtad Fundazioan" kreditatuta dago eta diru kontuak elkarte honek auditatzen ditu.*

El BAB está acreditado por la Fundación Lealtad y sus cuentas son auditadas y son públicas.

### PORTAERA KODE ETIKOA - CÓDIGO ÉTICO DE COMPORTAMIENTO:

*Bizkaiko Elikagai Bankuak "Ongune Etikoaren" arautegi bat sinatu du eta bertan agertzen diren helburuak hauek dira:*

- *Bolondresek osatzen dute giza talde lagunbidea, bakarkako pertsonalismoak baztertuz elkartearen lana oztopatzen badute. Elkar lana, errespetua eta denon arteko ondo izatea indartu behar da.*
- *Lanaren arrakasta konpromezuan datza. Bolondres batek ahal duena, nahi duena edo dakiena egin beharko du, baina emandako hitza bete beharko du ere.*
- *Ez da onartuko inolako diru ordainketarik erakunde-enganetik elikagaiak emateagatik.*
- *BABaren gestioa argia eta ondo azaldutakoa izan beharko du denontzako.*

El Banco de Alimentos de Bizkaia tiene establecido un Código Ético de Comportamiento". Estos son algunos de sus puntos:

- Los voluntarios constituyen un equipo humano solidario. Se debe evitar que los personalismos dificulten la labor del banco. Se debe promover la comprensión, el respeto y la ayuda mutua entre todos.
- El éxito del trabajo realizado reside en el compromiso. El voluntario hará lo que sepa, quiera o pueda hacer, pero cumplirá con aquello a lo que se ha comprometido.
- No se admitirá compensación económica alguna por los alimentos entregados a las instituciones.
- La gestión del banco ha de ser de total transparencia.

► Jakin ezazu gure "Ongune Etikoaren Arautegia" web orrialdea begiratzuz: [www.bancali-biz.org](http://www.bancali-biz.org)

► Conoce todo nuestro "Código Ético de Comportamiento" en: [www.bancali-biz.org](http://www.bancali-biz.org)



## 4

Gure zenbakiak  
Nuestras cifras

24.356 LAGUN  
ONGIEGITERATUAK

24.356 PERSONAS  
ATENDIDAS

3.887.542 KILO  
BANANDUTA

3.887.542  
KILOS REPARTIDOS

318 DENDAK PARTE  
HARTU DUTE BILKETA  
NAGUSIAN

318 ESTABLECIMIENTOS  
EN LA GRAN RECOGIDA

188 BOLONDRES

188 VOLUNTARIOS

1.099.540 € LORTU DIRA  
BILKETA NAGUSIAN

1.099.540 € OBTENIDOS  
EN LA GRAN RECOGIDA

4.386 HAUR ETA  
648 BULARRETAKO  
UMEENTZAKO ELIKAGAIAK  
BANANDUTA

4.386 NIÑOS Y  
648 LACTANTES

156 ELKARTE  
LAGUNTZAILE

156 ENTIDADES  
COLABORADORAS

999.861 LITRO ESNE  
BANANDUAK

999.861 LITROS DE  
LECHE ENTREGADOS

826.402 KILO BARAZKI  
ETA FRUTA BANANDUAK

826.402 KILOS DE  
FRUTAS Y HORTALIZAS  
REPARTIDOS

160 KILO ELIKAGAI  
ESKAINIAK PERTSONA  
BAKOITZETZAKO

160 KILOS ENTREGADOS  
POR PERSONA

0,057 € KOSTUA  
BANANDUTAKO KILO  
BAKOITZEKO

0,057 € DE COSTE  
POR KILO REPARTIDO

9,12 € KO KOSTUA  
JASOTZEN DUEN  
PERTSONA BAKOITZAGATIK

9,12 € DE COSTE  
POR BENEFICIARIO

# 1€ = 17,48 kgs.

GASTATZEN DEN € BAKOITZEKO, 17,48 KILO ELIKAGAI BANATZEN DITUGU BIZKAIAN  
POR CADA € GASTADO, REPARTIMOS 17,48 KGS. EN BIZKAIA





## ELIKAGAIEN JATORRIA (KG) / ORIGEN DE LOS ALIMENTOS (KG)


EB / UE	293.659	7,27 %
KANPAINAK, DOHAINTZAK / CAMPAÑAS, DONACIONES	566.238	14,02 %
MERCABILBAO	452.094	11,19 %
NEKAZARIEN KOOPERATIBAK / COOPERATIVAS AGRÍCOLAS	374.308	9,26 %
ELIKAGAIEN ENPRESAK / EMPRESAS ALIMENTARIAS	1.327.115	32,86 %
BANAKETA-ENPRESAK / EMPRESAS DE DISTRIBUCIÓN	412.289	10,21 %
GALKORRAK / PERECEDEROS	600.270	14,86 %
HAINBAT / VARIOS	12.000	0,29 %
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>4.037.973</b>	<b>100,0%</b>

## 2023AN BANATUTAKO ELIKAGAIK (KG) / ALIMENTOS REPARTIDOS EN 2023 (KG)

ELIKAGAI-TALDEA / GRUPO DE ALIMENTOS	GUZTIRA / TOTAL
ESNE TXARTELAK / LECHE TARJETAS	181.820
ESNEKIAK / LACTEOS	818.041
FRUTAK / FRUTAS	294.877
BARAZKIAK / VERDURAS	352.000
PASTA ETA ARROZA / PASTAS Y ARROZ	289.452
KONTSERBAK / CONSERVAS	171.000
OLIOAK / ACEITES	125.644
LEKALEAK / LEGUMBRES	228.485
EDARIAK ETA ZUKUAK / BEBIDAS Y ZUMOS	65.259
GOZOK. ETA GOSARIAK / REPOSTERÍA Y DESAYUNOS	174.000
SALTSAK ETA AURREZ SUKALDATUTAKO PLATERAK / SALSAS Y PLATOS PRECOCINADOS	83.246
ARRAIN ETA HARAGI / PESCADO Y CARNE	89.000
UMEENTZAKO ELIKAGAIK / ALIMENTOS INFANTILES	47.751
HAINBAT PRODUKTU / PRODUCTOS VARIOS	299.000
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>3.219.575</b>
UE	293.659
FEGA	374.308
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>667.967</b>



## KILOEN BANAKETA PROGRAMEN ARABERA / DISTRIBUCIÓN DE KGS. POR PROGRAMAS



## ENTITATE HARTZAILEEN BANAKETA MOTAREN ARABERA / ENTIDADES RECEPTORAS POR TIPOS

ENTITAREAREN MOTA / TIPO DE ENTIDAD	PERTSONAK PERSONAS	%	ENTITATEAK ENTIDADES	%
FAMILIAK / FAMILIAS	20.043	82,3%	75	48,1%
JANTOKIAK / COMEDORES	769	3,2%	9	5,8%
GIZARTERATZE ZENTROAK / INSERCIÓN SOCIAL	907	3,7%	13	8,3%
ABEGI ELKARTEAK / ACOGIDA	921	3,8%	18	11,5%
DROGAZALEAK / DROGODEPENDIENTES	424	1,7%	6	3,8%
EGOITZAK / RESIDENCIAS	454	1,9%	6	3,8%
IKASTETXEAK / COLEGIOS	105	0,4%	4	2,6%
ETORKINENTZAKO ZENTROAK / INMIGRANTE	613	2,5%	18	11,5%
PERTSONA EZINDUEN ZENTROAK / DISCAPACIDAD	49	0,2%	2	1,3%
ERLIJIOSOAK / RELIGIOSAS	71	0,3%	5	3,2%
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>24.356</b>	<b>100%</b>	<b>156</b>	<b>100%</b>



5

## Txosten Ekonomiko-finantzariora Informe Económico-financiero

### 5.1 BALANTZE LABURTUA, 2022 ETA 2023KO EKITALDIK (€-tan adierazia) BALANCE ABREVIADO EJERCICIOS 2022 Y 2023 (expresado en €)

AKTIBOA / ACTIVO	2022	2023
<b>A) EZOHIKO AKTIBOA / ACTIVO NO CORRIENTE</b>	<b>537.094,62</b>	<b>472.083,19</b>
I. <i>Ibilgetu ukiezina / Inmovilizado intangible</i>	1.209,87	709,23
II. <i>Bestelako ibilgetu materialak / Otras inmovilizaciones materiales</i>	534.889,09	470.378,30
III. <i>Ibilgetu finantzariorak / Inmovilizaciones financieras</i>	995,66	995,66
<b>B) OHIKO AKTIBOA / ACTIVO CORRIENTE</b>	<b>1.241.175,66</b>	<b>929.977,92</b>
IV. <i>Bestelako zordunak / Otros deudores</i>	644.131,98	446.755,48
V. <i>Inbertsio finantzariorak epe laburrera / Inversiones financ. a corto plazo</i>	0,00	0,00
VI. <i>Epe laburrera eratutako fidantzak / Fianzas constituidas a corto plazo</i>	0,00	0,00
VII. <i>Esku-dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk / Efectivo y otros activos líquidos equivalentes</i>	597.043,68	483.222,44
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.778.270,28</b>	<b>1.402.061,11</b>

PASIBOA / PASIVO	2022	2023
<b>A) ONDARE NETOA / PATRIMONIO NETO</b>	<b>1.540.437,30</b>	<b>1.285.601,78</b>
<b>A-1) Funtz propioak / Fondos propios</b>	<b>262.281,85</b>	<b>278.262,94</b>
I. <i>Gizarte funtsa / Fondo Social</i>	58.181,47	58.181,47
II. <i>Aurreko ekitaldietako soberakinak / Excedentes ejercicios anteriores</i>	203.366,70	219.545,63
III. <i>Emaitza / Resultado</i>	733,68	535,84
<b>A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos</b>	<b>1.278.155,45</b>	<b>1.007.338,84</b>
<b>B) EZ OHIKO PASIBOA / PASIVO NO CORRIENTE</b>	<b>12.262,66</b>	<b>0,00</b>
I. <i>Epe luzerako zorrak kreditu entitateekin / Deudas a largo plazo con Entidades de Crédito</i>	12.262,66	0,00
<b>C) OHIKO PASIBOA / PASIVO CORRIENTE</b>	<b>225.570,32</b>	<b>116.459,33</b>
V. <i>Epe laburreko zorrak kreditu entitateekin / Deudas a corto plazo con Entidades de Crédito</i>	11.538,61	3.497,67
<i>Bestelako pasibo finantzariorak / Otros pasivos financieros</i>	0,00	3.500,00
VI. <i>Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk / Acreedores Comerciales y otras cuentas a pagar</i>	214.031,71	94.461,66
VII. <i>Epe laburrerako Periodotasuna / Periodificación a corto plazo</i>	0,00	15.000,00
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.778.270,28</b>	<b>1.402.061,11</b>



5.2 GALERA ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA 2022 ETA 2023KO EKITALDIAK  
(€-tan adierazia)  
CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS ABREVIADA EJERCICIOS 2022 Y 2023  
(expresada en €)

	2022	2023
<b>A) ERAGIKETA JARRAITUAK / OPERACIONES CONTINUADAS</b>		
<b>1.- ERAKUNDEAK BERE JARDUERAGATIK LORTURIKO SARRERAK / INGRESOS DE LA ENTIDAD POR LA ACTIVIDAD PROPIA</b>	<b>1.648.280,42</b>	<b>1.262.020,09</b>
a.- Erabiltzaile eta afiliatuen kuotak / Donativos de socios y afiliados	101.340,02	105.283,64
c.- Ekitaldiko emaitzari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados imputados al resultado del ejercicio	1.546.940,40	1.156.736,45
<b>4.- ELIKAGAIEN EZ-OHIKO EROSKETA / ADQUISICIÓN EXTRAORDINARIA DE ALIMENTOS</b>	<b>-2.199.430,24</b>	<b>-1.855.851,77</b>
<b>6.- PERTSONALAREN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL</b>	<b>---</b>	<b>---</b>
a.- Soldatak eta ordainsariak / Sueldos y salarios	---	---
c.- Gizarte kargak / Cargas sociales	---	---
<b>7.- BESTE GASTU BATZUK / OTROS GASTOS</b>	<b>-246.843,58</b>	<b>-218.387,35</b>
<b>8.- IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA / AMORTIZACIÓN DEL INMOVILIZADO</b>	<b>-102.747,12</b>	<b>-107.091,77</b>
<b>11.- EKITALDIKO SOBERAKINARA INTSULDATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA KAPITAL-LEGATUAK / SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS DE CAPITAL TRASPASADOS AL EXCEDENTE DEL EJERCICIO</b>	<b>905.854,46</b>	<b>923.765,47</b>
<b>12.- BESTE EMAITZA BATZUK / OTROS RESULTADOS</b>	<b>-556,49</b>	<b>0,00</b>
<b>A.1) USTIAPENAREN EMAITZA / RESULTADO DE EXPLOTACIÓN</b>	<b>4.557,45</b>	<b>4.454,67</b>
<b>13.- DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK / INGRESOS FINANCIEROS</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>14.- GASTU FINANTZARIOAK / GASTOS FINANCIEROS</b>	<b>-3.823,77</b>	<b>-3.918,83</b>
<b>A.2) FINANTZA EMAITZA / RESULTADO FINANCIERO</b>	<b>-3.823,77</b>	<b>-3.918,83</b>
<b>A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZAK / RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS</b>	<b>733,68</b>	<b>535,84</b>
<b>A.4) EKITALDIAREN EMAITZAK / RESULTADOS DEL EJERCICIO</b>	<b>733,68</b>	<b>535,84</b>



### 5.3 2023KO EKITALDIKO LIKIDAZIOA ETA 2024EKO AURREKONTUA (€-tan adierazia) LIQUIDACIÓN EJERCICIO 2023 Y PRESUPUESTO 2024 (expresado en €)

	2023			2024
	Aurrekontua Presupuesto	Erreal Real	Disbiderapen Desviación	Aurrekontua Presupuesto
<b>SARRERAK / INGRESOS:</b>				
<i>Bazkideen kuotak / Cuotas de socios</i>	110.000	105.284	-4.716	107.000
<i>Victor Tapia Fundazioa / Fundación Víctor Tapia</i>	0	0	0	0
<i>Beste erakunde batzuen dohaintzak / Donaciones de otras Entidades</i>	1.000.000	1.006.249	6.249	1.006.000
<i>Diru-laguntzak / Subvenciones</i>	186.555	82.136	-104.419	82.555
<i>Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia</i>	24.000	25.000	1.000	25.000
<i>Bilboko Udala / Ayuntamiento de Bilbao</i>	108.000	0	-108.000	0
<i>Basauriko Udala / Ayuntamiento de Basauri</i>	2.555	2.555	0	2.555
<i>Beste udal batzuk / Otros Ayuntamientos</i>	52.000	54.581	2.581	55.000
<i>Beste sarrera batzuk / Otros ingresos</i>	100	0	-100	0
<i>Eusko Jaurlaritzaren ekarpena / Gobierno Vasco aportación</i>	50.000	36.556	-13.444	46.500
<i>EB-ren elikagaiak banatzeko FESBAL / FESBAL reparto U.E.</i>	15.000	31.796	16.796	0
	<b>1.361.655</b>	<b>1.262.020</b>	<b>-99.635</b>	<b>1.242.055</b>
<i>Hainbat ekitalditan banaturik diru-laguntzen emaitzetara intsualdaketa / Traspaso a resultados de subvenciones a repartir en varios ejercicios</i>	950.000	923.765	-26.235	950.000
<b>SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS</b>	<b>2.311.655</b>	<b>2.185.786</b>	<b>-125.869</b>	<b>2.192.055</b>
<b>GASTUAK / GASTOS:</b>				
<i>Komunitate gastuak / Gastos de Comunidad</i>	8.000	8.837	837	9.000
<i>Alokagailluak / Alquileres</i>	1.000	863	-137	1.000
<i>Furgonetak konpontzea / Reparación de furgonetas</i>	15.000	7.364	-7.636	10.000
<i>Informatika mantentze-lanak eta web orria / Mantenimiento informático y pág. web</i>	25.000	14.868	-10.132	18.000
<i>Segurtasun Sistemak / Sistemas de Seguridad</i>	1.500	952	-548	1.500
<i>Makinak konpontzea / Reparación de maquinaria</i>	10.000	14.501	4.501	15.000
<i>Pertsonalaren garraioa / Transporte de personal</i>	15.000	8.533	-6.467	15.000
<i>Merkantzien garraioa / Transporte de mercancías</i>	13.000	7.020	-5.980	19.000
<i>Lanbide zerbitzuak / Servicios profesionales</i>	1.200	3.537	2.337	1.200
<i>Gasolioa / Gasoil</i>	25.000	26.526	1.526	32.000
<i>Auditoria / Auditoría</i>	3.000	2.662	-338	3.000
<i>Aseguruak / Seguros</i>	18.000	14.102	-3.898	14.500
<i>Bankuko zerbitzuak / Servicios bancarios</i>	5.000	3.919	-1.081	5.000
<i>Publizitatea, harreman publikoak / Publicidad, relaciones públicas</i>	20.000	26.426	6.426	25.000
<i>Elektrizitatea / Electricidad</i>	26.000	18.406	-7.594	20.000
<i>Telefonoa / Teléfono</i>	4.000	2.877	-1.123	3.500
<i>Posta, komunikazioa / Correos, comunicación</i>	500	275	-225	300
<i>Bulegoko eta beste material batzuk / Material de oficina y diversos</i>	9.000	8.154	-846	9.000
<i>Bestelakoak / Varios</i>	4.000	4.092	92	4.000
<i>Biltegiaren beste gastuak / Otros gastos de almacén</i>	18.000	12.954	-5.046	15.000
<i>Euskadiko Federazioa / Federación de Euskadi</i>	1.000	300	-700	1.000
<i>FESBAL / FESBAL</i>	1.300	1.177	-123	1.300
<i>Zergak / Impuestos</i>	2.000	1.364	-636	2.000
<i>Ura, tasak, etab. / Agua, tasas, etc.</i>	500	459	-41	500
<i>EB-ren elikagaiak banatzea / Reparto alimentos U.E.</i>	20.000	12.519	-7.481	0
<i>Aurreko ekitaldiaren Txostena / Memoria ejercicio anterior</i>	3.900	3.950	50	3.900
<i>Billketa Handia / Gran recogida</i>	10.000	15.669	5.669	17.000
	<b>260.900</b>	<b>222.306</b>	<b>-38.594</b>	<b>246.700</b>
<i>Amortizazioak / Amortizaciones</i>	90.000	107.092	17.092	90.000
<i>Elikagaien Erosketa / Adquisición de alimentos</i>	1.960.000	1.855.852	-104.148	1.855.000
<i>Ezohizko gastuak / Gastos excepcionales</i>	0	0	0	0
<b>GASTUAK GUZTIRA / TOTAL GASTOS</b>	<b>2.310.900</b>	<b>2.185.250</b>	<b>-125.650</b>	<b>2.191.700</b>



## 6

## 2023an Gertutakoa Acontecimientos en 2023

### Mercabilbao | Mercabilbao

2023an, Mercabilbaon **54 ELKARTERI** lagundu genien: horietako 20 astero etortzen dira, eta gainerakoak hilean bi bider.

Guztira, **826.402 KILO ELIKAGAI FRESKO** banatu genituen, bost iturri desberdinetakoak:

- Mercabilbaoko handizkariak.
- Bizkaiko Mercadona.
- Barrenetxe kooperatiba.
- FESBALen bitartez: Kanarietako platanu.
- FEAGA: Futa eta barazki, Europako funtsekin ordainduak. 2022arekin alderatuta, banatutako kopuruak % 15 handitu dira oro har, batez ere Espainiako Elikagaien Bankuen Federazioak (FESBAL) Kanarietako platanu gehiago eman dituelako. Era berean, Mercadonatik eta Barrenetxe Kooperatibatik elikagai kantitate bertsuak jaso dira, eta dezente txikitu da (% 18) Nekazaritza Bermerako Espainiako Funtsetik (FEAGA) jasotako produktuen kantitatea.

Durante 2023, en Mercabilbao se atendieron a **54 ASOCIACIONES**, 20 de las cuales reciben alimentos todas las semanas y el resto dos veces al mes.

Se han repartido un total de **826.402 KILOS DE ALIMENTOS FRESCOS** procedentes de cinco orígenes distintos:

- Mayoristas de Mercabilbao.
- Mercadona de Bizkaia.
- Cooperativa Barrenetxe.
- A través de FESBAL: plátanos de Canarias.
- FEAGA: frutas y hortalizas, pagadas con fondos europeos. Con respecto a 2022, las cantidades repartidas han aumentado globalmente un 15%, sobre todo, debido al aumento de las donaciones de plátano de Canarias entregadas por la Federación Española de Bancos de Alimentos (FESBAL). Asimismo, se han recibidos cantidades similares de alimentos procedentes de Mercadona y Cooperativa Barrenetxe y disminuye de forma considerable (18%) la cantidad de producto recibido del Fondo Español de Garantía Agraria (FEAGA).





## Erosketak | Compras

2023an, Bizkaiko Elikagaien Bankuak egindako erosketak honela banatu dira **FUNTSEN JATORRIAREN** arabera:

En 2023, la distribución de las compras efectuadas por el Banco de Alimentos de Bizkaia por **ORIGEN DE FONDOS** fue:

### 2023AN EROSITAKO ELIKAGAIK / ALIMENTOS COMPRADOS EN 2023

JATORRIA / ORIGEN	GUZTIRA KG. TOTAL KGS.	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL	GUZTIRA € TOTAL €	GUZTIZKOAREN % % SOBRE TOTAL
BONOAK / BONOS	729.865	56%	771.242	44%
EROSKETA / COMPRA	403.520	31%	624.971	36%
DOHAINTZA / DONACIÓN	161.532	12%	340.541	20%
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.294.917</b>	<b>100%</b>	<b>1.736.754</b>	<b>100%</b>



2022ko erosketen azterketa konparatiboa eginez, % **25,16 ELIKAGAI GUTXIAGO** erosi ditugu, eta **EROSITAKO KILOGRAMO BAKOITZEKO ORDAINDUTAKOA HAU IZAN DA: 1,34 €/KG.** Ratio hori **1,061 €/KG-KOA IZAN ZEN 2022AN**, eta horrek prezioek urte batetik bestera izandako gorakada islatzen du.

Era berean, nabarmentzekoa da 2023an Bizkaiko Elikagaien Bankuak **"TXARTEL SOLIDARIOA"** deritzonaren programa pilotua martxan jarri duela Eroski S. Coop.-ekin lankidetzan, "gosearen ilarak" arintzeko eta onuradunek bonuak zuzenean supermerkatuetan aldatu ahal izatea lortzeko. Bonuen programaren barruan **151.514 €** kontsumitu dira, eta horien bidez onuradunek **172.175 LITRO ESNE** erosi dituzte zuzenean. Gainera, behar gehien dutenei laguntzeko Europako funtsaren (FEAD) programako **295.920 KG** elikagai banatu dira guztira.

En un análisis comparativo con las compras del 2022, se han adquirido un **25,16% MENOS** de alimentos y la **REPERCUSIÓN €/KG COMPRADO HA SIDO DE 1,34 €/KG**, mientras que este mismo ratio, **EN 2022, FUE DE 1,061 €/KG**, lo que nos da una idea del incremento de precios que se ha sufrido de un año para otro.

Asimismo, hay que destacar que, en el 2023, el Banco de Alimentos de Bizkaia ha puesto en marcha el programa piloto de la **"TARJETA SOLIDARIA"** en colaboración con Eroski S. Coop., para mitigar las "colas del hambre" y hacer que los beneficiarios puedan canjear directamente los bonos en los supermercados. La cantidad de euros consumidos contra el programa de bonos ha sido de **151.514 €** y han supuesto un total de **172.175 LITROS DE LECHE** comprados directamente por las personas beneficiarias.

Además, se han distribuido un total de **295.920 KGS.** de alimentos del programa del Fondo Europeo de Ayuda a las Personas más Desfavorecidas (FEAD).





## Gizarte Arloa | Área Social

2023an, **24.356 ONURADUN** artatu ditugu hilero. 7.987 familiari eman diegu laguntza, eta horien artean daude 4.386 haur eta 648 bularreko ume. Aurreko urteko kopuru bertsuak dira.

Familiei banaketa egiteko, **156 KONTSUMO- ETA BANAKETA-ERAKUNDEREN** laguntza izan dugu.

Era berean, **ERROLDARIK GABEKO 249 LAGUN** artatu ditugu hilero **ESKUA EMAN** proiektuaren baitako 4 zentro operatiboan bidez.

Aurrerapenak egin ditugu Eroskiko diru-txartelak emanez familiei esnea eta olio banatzeko proiektuan. Dagoeneko **13 ERAKUNDEK BAT EGIN DUTE PROIEKTUARERKIN, ETA 1.291 FAMILIA (3.281 PERTSONA)** joaten dira Eroskiren dendetara bi produktu horiek jasotzera. Aukera horrekin bi helburu lortzen dira: batetik, gure biltegian eta banaketa-erakunde biltegiatan produktu horien logistika erraztea (pisu eta bolumen handia dute), eta bestetik, familiek ez garraiatu behar izatea zenbait litro esne aldi bakarrean.

Gizarte arloan **INFORMATIKAKO UNITATEA** sortu dugu, familiei banaketak egiten dizkieten erakundeak digitalizatzeko; hala, familiekiko komunikazioa eta banaketaren antolaketa erraztuko dizkiegu.

Urteko azken hiruhilekoan martxan jarri da **BASURTUKO LAGUN ZENTROA**. Bilboko Udalaren, Gurutze Gorriaren eta Elikagaien Bankuaren laguntza jasotzen du. Bertan, familiek autozerbitzu-sistemaren bidez jasotzen dituzte produktuak, eta une honetan **531 FAMILIA** artatzen dituzte, guztira 1.046 pertsona. 2024ko hurrengo hiletan kopuru hori handitu egingo da, Bilboko beste erakunde batzuetako onuradunak sartzen ari baitira pixkanaka eta modu ordenatuan.

Durante el año 2023, hemos atendido mensualmente a **24.356 PERSONAS** beneficiarias. Las familias atendidas han sido 7.987, de las cuales 4.386 son niños y 648 lactantes. Estas cifras son similares a las del año anterior.

Hemos efectuado el reparto a las familias con la colaboración de **156 ENTIDADES DE CONSUMO Y DE REPARTO**.

También, hemos atendido mensualmente a **249 PERSONAS SIN PADRÓN** a través de los 4 centros operativos **ESKUA EMAN**.

Seguimos avanzando con el proyecto de reparto de leche y aceite a familias mediante la entrega de tarjetas monedero de Eroski. Son ya **13 LAS ENTIDADES ACOGIDAS A ESTE PROYECTO Y 1.291 LAS FAMILIAS (3.281 PERSONAS)** que acuden a centros de Eroski a recoger estos dos productos. Con esta opción se consigue un doble objetivo: simplificar la logística de estos productos (que pesan y ocupan) tanto en nuestro almacén como en los almacenes de las entidades de reparto y que las familias no tengan que transportar de una vez varios litros de leche.

Hemos creado una **UNIDAD INFORMÁTICA** en el área social con objeto de digitalizar a las entidades de reparto a familias y facilitarles la comunicación con las familias y la organización del reparto.

Durante el último trimestre de este año, ha comenzado a operar el **CENTRO LAGUN-BASURTO**. Este centro opera con la colaboración del Ayuntamiento de Bilbao, la Cruz Roja y nuestro BAB. Las familias recogen los productos mediante el sistema de autoservicio y en este momento atiende a **531 FAMILIAS** lo que hace un total de 1.046 personas. Durante los próximos meses del 2024, este número se duplicará porque se están incorporando beneficiarios de otras entidades de Bilbao de forma progresiva y ordenada.







## Garraio Arloa | Área de Transporte

Gure egituran, Bizkaia osoa hartzen duten **8 IBILBIDE** ditugu. **FURGONETA BAKOITZEAN BI BOLUNTARIO** ibiltzen dira, gurekin akordioa duten establezimenduetan elikagaiak biltzen. Guztira 8 furgonetan ditugu, eta 2023an 150.324 km egin zituzten.

Barazkiak biltzen ditugu. Larunbatetan bilketak egiten ditugu Mercadonak Bizkaian dituen 17 saltokietan, gidari boluntarioen 4 talderen bidez.

Astero, Eroskik Elorrioren duen plataforman elikagaiak eta garbiketako produktuak jasotzen ditugu. Astean behin Markinako Barrenetxe Kooperatibara joaten gara, eta barazkiak jasotzen ditugu.

Arlo honetan **33 BOLUNTARIO** ditugu, gure lana egiteko eta 2024 urterako, **BILKETAK % 10 HANDITZEA** aurreikusten dugu.

La estructura funciona con **8 RUTAS CON DOS VOLUNTARIOS EN CADA FURGONETA** y abarca la provincia de Bizkaia, recogiendo alimentos en los establecimientos con los que tenemos acuerdo. Contamos con 8 furgonetas haciendo 150.324 kms en el año 2023.

Los sábados también se llevan a cabo recogidas en los 17 establecimientos de Mercadona de Bizkaia, con 4 equipos de conductores voluntarios.

Semanalmente se recoge en la Plataforma de Eroski de Elorrio productos alimenticios y de aseo. Un día a la semana se acude a la Cooperativa Barrenetxe de Markina que proporciona verduras y hortalizas.

El área cuenta con **33 VOLUNTARIOS** para desarrollar el trabajo y la previsión para 2024 es aumentar en un **10% LAS RECOGIDAS**.



## Ikastetxeen Arloa | Área de Colegios

2023an zehar ere atek irekita izan ditugu Bizkaiko ikastetxeen laguntza zuzena jasotzeko. Elkarrekin, helburu komunitario batzuk ahalik eta gehien garatzen saiatu gara, hala nola gazteak pobrezia, gosearen eta elikagaiak xahutzearen aurkako borrokan sentibilizatzen. Hala, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren lehen bi helburuak azpimarratu ditugu: 1) "Pobrezia desagerraraztea" eta 2) "Goserik ez".

Horretarako, Bizkaiko Elikagaien Bankuaren webguneko "Proiektu didaktikoa" atalean jartzen ditugun material didaktikoak eguneratzen eta osatzen jarraitzen dugu.

Urtean zehar, jarduera zehatzak egin ditugu 100 es-

Una vez más, a lo largo del año 2023, hemos tenido abiertas nuestras puertas a la directa colaboración con los centros escolares de Bizkaia. Juntos, hemos orientado nuestros esfuerzos a desarrollar al máximo algunos objetivos comunes como la sensibilización de nuestros jóvenes en la lucha contra la pobreza, el hambre y el despilfarro de alimentos. De esta forma, hemos incidido en los dos primeros objetivos de la agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible: 1) "Fin de la pobreza" y 2) "Hambre cero".

Para ello, seguimos actualizando y completando los materiales didácticos que ponemos a disposición en la web del Banco de Alimentos de Bizkaia, apartado "Proyecto Didáctico".



kola eta institututan, eta ikasleen testuinguru eta interresetara hobekien egokitzen diren jarduerak gauzatu ditugu kasu bakoitzean.

Lan horren emaitza gisa, **51 IKASTETXEK** elikagai-bilketak antolatu dituzte, eta **27.284 KG ELIKAGAI BILDU DITUZTE**. Beste hainbestek boluntarioen ekintza landu dute, eta 1.000 ikaslek baino gehiagok eta 100 irakaslek baino gehiagok parte hartu dute elikagaien Bilketa Handietan. Beste hiru ikastetxek FESBALek antolatutako marrazki-lehiaketan parte hartu dute, eta arduratsuenaren saria lortu dute. Gainera, zenbait bisita egin ditugu jantoki sozialetara eta elikagaiak banatzen dituzten erakundeetara, eta bilera ugari egin ditugu irakasle eta ikasleekin.

Ikasleengan elkartasunaren eta gizarte-konpromisoaren balioak garatu nahi dituzten profesional ugariaren konpromisoari esker egin ahal izan dugu hori guztia. Ziur gaude datorren urtean ere jarraitu ahal izango dugula lankidetzaren emankor honekin.



A lo largo del año, hemos concretado actividades en 100 colegios e Institutos, realizando en cada caso las actividades que más se adaptaban a sus contextos e intereses. Fruto de este trabajo, **51 CENTROS** han organizado recolectas de alimentos con una **APORTACIÓN DE 27.284 KGS**. Otros tantos han trabajado sobre la acción del voluntariado en el que han colaborado más de 1.000 alumnos y más de 100 profesores en las campañas de la Gran Recogida de alimentos. Otros tres centros han participado en el concurso de dibujo organizado por FESBAL, logrando el premio al más responsable. Además, se han realizado diversas visitas a comedores sociales y entidades distribuidoras de alimentos y se han realizado numerosas reuniones con profesorado y alumnado.

Todo ello, gracias al importante compromiso de tantos profesionales de los centros escolares, empeñados en desarrollar en su alumnado valores solidarios y de compromiso social. Estamos convencidos de poder continuar el próximo año con esta colaboración tan fructífera.

## Ingurumena | Medio ambiente

